

EUSKALDUN ABIZENAK SEVILLA'N ETA CADIZ'EN

Utrera, Uztaila, 1980

Donostia, 1980-IX-26

Garmendia'tar Jose

Euskaltzaindia'ko euskerazain jaun agurgarriok:

Zuei itz egiteko aukeratu dedan, gaia, ez da oso erreza, noski. Buru austeaundiak sortu legiguzke. Gatzik gabeko itzaldi legorra izan ere bai. Alegiaña sariatuko naiz onela gerta ez dadin. Etzaituztet aspertu nai. Ta arazo onen ikasketa luze ta sakonagoa, *Euskaltzaindiaren EUSKERA* aldizkarian egin nai nuke.

Edozein modutan ere, orain ogei ta amar bat urte, Erroma'ko berebillen joan-etorriaren zaiñtzaille batek egin zuena, ez nuke egiañ nai. Semaforo edo kiñu argia gorri zegoala, Iñazio Omaetxeberria kale bat zearkatzen ari zan. Zaindariak kalearen erdi erdian gelditu zuen. Atera zuen bere liburutxoa, ta galdetzen asi zitzaina:

—Il suo nome? Zure izena, mesedes?

—Iñazio.

Erantzun zion nire lagunak.

—Il cognome? Zure abizena?

—Omaetxeberria, laister batean erantzun zion.

Zaindariak, bere janzkera txuri txuriaren gaiñetik, lepoa ta belarriak luzatzen zituela, berriz ere galdetzen dio:

—Come, come! Nola, nola?

—Omaetxeberria, izkin bakoitza geldiro tinkatzen zuela, erantzuten dio.

—Ta zaindariak ala esaten dio:

—Passare questa volta. Oraingoagatik barkatzen zaizu.

Montilla'n, Cordoba'ko erri batean, gertatu zitzaiguna ere esan nezake: txartel batean onela adierazten zen:

Orduzko ogeita amabost kilometro baiño bizkorrago ez joan. Eta gu azkarrago giñuazten.

Zaintzailleak gelditu gintuen.

—Nolako laistertasunean zetozten, zuek?

—Ez al dezute orma txartela ikusi? irakurri?

—Zer izen eta abizen dituzu zuk? galdetzén dio berebilla zeramakian nere lagunari.

—Jesús Otegui, erantzuten dio.

—Bigarren abizena?

—Eraunzetamurguil.

Zaindariak:

—Adarra beste bati jo nai badiozu!

—Nik zer erru ote daukat ba?

—Nire amaren abizena da, erantzun zion Jesús Otegui nire lagunak.

Zaindariak etzuan idatzi, eziñ zuen idatzi abizen ori; baiña diru nekea ordaindu bear izan genduan.

* * *

Andaluzia'ko ta batez ere Sevilla ta Cadiz'ko euskal abizenak ikastea ta aztertzea, oso gauza onuragarria da, noski. Ta au arrazoi askorengatik. Lenengo, euskal abizenak Euskalerriko paperetan baiño aurretik Andaluzikoetan idatzita daudelako.

Bigarren, eziñ aztu dezakegu, batez ere amaseigarren gizalditik aurrera, Andaluziatik euskaldunak erruz igaro zirela. Sevilla ta Cadiz batik bat garai artan Indietako ate ta kai biurtu zirela. Bi ura auetatik makiña bat euskaldunek Amerikatera salto egin zuela, euren izenak erri auetan ezarri ondoren.

* * *

Orain, gaia geiegi ez luzatzeko, Amerikako mundu berria arkitu zen ezkerotzik, Andaluzian euskalduna ugari ta oparo ibilli zala, uste izan bear degu.

Sevilla ta Cadiz'ko euskaldun abizenak ikasi ditut. Ainbeste paper txor-tatan ain ugari diran abizenak! Zergatik diot au?

Or dauzkagu ainbeste meritu ta irabazi duten liburuak. Jaime Kerexeta-ren: *Diccionario onomástico y heráldico vascos*.

Onek aurrean euki ditu Sabino Arana'ren: *Tratado etimológico de Apellidos vascos*;

Isaac Lopez Mendizabal'en: *Lista Alfabética de Apellidos Vascos*; eta Luis Mitxelena'ren: *Apellidos Vascos*. Ba liburu auetan esateko, Sevilla ta Cádiz'en aipamenik ez da arkitzen. Eta euskaldun abizenak euren erritik, Euskalerritik, zuzen zuzen Colombia, Uruguay ta Mexiko'ra igarotzen dira.

Ta... euskalzain agurgarriok?, Euskalerritik kanpora irten diran euskaldunen edestia nai ta nai ez Andaluziatik igarotzen da, ta batez ere, Sevilla ta Cadiz'tik. Euskaldunen edestia ezin leiteke osatu ta ondo egin, euskaldunen Andaluziara etortzea gogoan artu gabe. Emendik, Andaluziatik, euskaldun askok eta askok Ameriketara jo zuen eta saltatu ziran, eta gero Ameriketan bizi izan ziran beren arrasto bikaina bertan uzten zutela. Orregatixe, Sevilla ta Cadiz'ko euskaldun abizenen ikasketa oso onuragarria izango den ustean, egin det lantxo au. Oraindik geiago zeaztuko degu zergatik aukeratu dedan gai au. Ta arazoan erabat sartu baiño len, euskaldunek, Guadalquivir'ko urian, Sevillan, izan duten egoera gogoratu dezagun, bilduma txiki bat egiñez.

Euskaldunak Sevilla'n

Euskaldunak Sevilla'n oso aspaldidianik agertzen dira. Gutxieneko, kris-tauak Sevilla milla berreun da berrogei ta zortzigarren urtean birartzen dute-nean. Milla berreun da berrogei ta zazpigarrean, uria inguratzten ari zirela, Fernando erregeak Ramon Bonigaz'i deitu egin zion, eta Bizkaiko itsas kaie-tan guda untziak eratzeko agindu.

Ondasunak eta kaleak banakatu zituztenean, kale bat bizkaitarrentzako izan zen. Au da, Guipuzkoa, Araba ta Bizkaikoak ziranentzako. Berdin Alfonso amargarrena jakintsuak, milla berreun da irurogei ta seigarren urtean, Cadiz jendez eta bizitanlez bete nai izan zuenean. Bizitanle zerrendan euskaldun abizenak asko agertzen dira. Milla lareun ta irurogei ta amabiga-ren urtean, Cadiz'en, gidari bizkaitarrentzako ikastetxe bat ere ba dago.

Milla bosteun ta berrogeigarren urtean, ba daude agiri batzuk. Donostia-ko udalak Sevilla'koari berreun "cahiz" ogi ateratzeko baimena eskatzen dioenak. Cartagena'ko kaian salgaiez beteta lapurtutako itsautzi bat itzul-erazi egiten duena. Gipuzkoako lurraldeak, milla lareun da irurogei ta amabi-garren urtean, uri artan gizarte babesak badauzkatela ta, Sevillan bizi diran azokari gipuzkoarrei kalterik ez egiteko, eskatzen dio Sevilla'ko udalari. Eus-kaldunek burnia eramatzen dute Sevilla'ra, ta garia, oliao ta ardoa ekartzen dituzte. Amabostgarren gizaldian, bizkaitarra danen gañetik karraitzallea dela, Artola jauna esan izan oi du.

Beste aldetik, "bizilagun asko izateak, eta mendian bizitzeko aurrera-pen gutxi edukitzear", milla bosteun da amaikako errege txartel batek dioen bezala, edo ta "jende asko ta leku estuak izateak", Veneziako Carlos bostga-renaren Andres Navajero ordezkarriak geroago idatziko duen bezala, "bizi-

modua beren aberritik kanpora billatzeak beartzan ditu". Beste orrenbeste esango du, andik urte askotara, aita Larramendik bere *Corografia* liburuan.

Baina batez ere amaseigarren gizaldiaren asieran asten dira baztar guztietatik Guadalquivir'ko urian sal-erosketak egiten. Ezta bat ere ba arritze-koa, euskaldunak ere Sevillan geitzen eta ugaritzen joatea, ta gero ta garrantzi aundiagoa izatea. Ain egia da au, Ortiz de Zuñigak zalantzariak gabe "bizkaitar leialen bigarren aberria Sevilla dela", esaten du. Aien semeak oso errex igarotzen dirala bertara; Egia esan, beti-beti ain errex ere ez.

Indietako artxibo edo ageritegian, Zaldibi'ko Lope de Urtesabel'gandik auxe artzen degu. Zangoza bere lagun batekin irten zala etxetik bide pixka batean. Bere amak bi alkandora eman zizkiola ta amalau ducado biderako, ta ala esaten zion bere semeari: Bere oea salduko bazuan ere, ez oinez, zaldiz baizik joan zedilla nai zuala, oinbeste bidean. Indietako sarrera ta asiera ederra onelako ibillaldi luzea! Asi Euskarriko mendi ezeetatik eta Guadalquivir'ko zelai atsegineraino, Castilla'ko zelai-latz-gogotretik igaroz!

Batez ere, amaseigarren gizaldi osoan zear, Ameriketako mundutik irixten ziran berriekin lilluratuta, euskaldun asko ta asko Sevillara etortzen asi ziran. Gelditu gabe eterri ere, Itunpen Etxeak milla zazpireun ta amabostgaren urtean Cadiz'era pasa zan arte. Amazazpigaren gizaldiaren asieran euskaldun talde bat Cadiz'en ezarrita ikusten badegu ere. Orduan euskaldunak Sevilla'ko erakundeeetan leku garrantzitsuenak artzen asi ziran. Orduan biurtu zan Sevilla Indietako ate ta kai, Itunpen Etxe.

"Ordurarte Andaluzia munduaren azkena zan... Indiak eta Amerikak arkitu ondoren... bide bat besterik ez da", dio Tomás Mercado prailleak bere *Suma de Tratos y Contratos'en* Sevilla, 1571, 11. Liburua, 1. Kap.

Zalantzariak gabe, ez bakarrik sal-erosketan eragille ta neurtzaille, baizik eta koloniak sortzen eta erriak irasi ta lantzen aini parte aundiak izan zuena, Sevilla'ko Itunpen Etxe erakundea izan zan. Ba foroga dezagun, Itunpen Etxe ortako langille, ofizial, agintari diruzai, zenbatzaille... euskaldun asko izan zirala. Adibidez, Carranza'ko Matienzo. Villafrankako Ochoa de Issasaga. Azkoitiko Lopez Recalde'ri, milla bosteun ta ogei ta irugarren urtean, Domingo Ochandianok jarraitu zion. Oni, Diego Zaratek, milla bosteun da ogei ta amairutik milla bosteun da berrogei ta amabost arte. Ta milla bosteun da larogei ta iruan, Ochoa de Urquiza ikusten degu.

Batez ere, burni lanetako sal-erosleak bizi izandu ziran Sevilla'ren erdi erdian, katedralaren eskailera inguruau, zegoen kale batean. Orregatik jarri zioten bizkaitarren kale izena. Kale au Baiona ta Genova kaleen eta gaur Sevillako udaletxea dan San Francisco plazaren ondoan dago. Milla bosteun da berrogeigarren urtean ementxe zeukaten bizkaitarrek beren Kofradia edo anaitegia. Badakigu kale ortan bizi zirala euskaldun asko, oñatiarrak eta baita arrasetar batzuk ere.

“Burni ta lantza klase denak saltzen zituztela”, idatzen du Peraza jaunak urte aietan. Geroago, ta bertsotan, Lope de Vegak idatziko duena: *Hierro trae el vizcaíno, el cuartón, el tiro, el pino.*

Burni tratalariaiak zirala garbi asko ta bi eratara, leen apaitu degun milla bosteun da berrogeiko anaitegiaren arauetan, ikusten da. Beroietan agertzen da, beren elizatxoan taju ta antolatzeko, zenbaiteko sal-neurrian, edozein burnizko tresna, iltze, palanketa, aizte kutxa bat, eun kintal burni... ordaindu bear dituzten.

Entzule ta idazkari batzuk, eta alkateren bat, Castillo de Triana'ko Bartolomé de Vizcarra bezala kendu ezkerro, milla bosteun da berrogeian elizatxoaren jabe egiten diren ogei ta lautatik, eta gero milla bosteun da urorogeitik batean anaitegiko arauetan izendatzen diren berrogeitatik, ia denak burni azokari ta antzekoak ziren, eta Amerikakin tratu-lanak egiten zuten.

Gure edestilari Garibay aundia, zaindu zuan Monardes sendagille sonautuak (arrasetarrak mediku onetaz itz egiten du bere *Memorias*), milla bosteun da larogei ta amalaugarren urtean *Didólogo del hierro y sus grandeszas* izena zuen liburutxo bat argitaratu zuen. Solaskiden artean, Ortuño izeneko bat agertzen da. Olagizon bizkaitar bat da. Indiatara bialdu bear diran burnien arduradun Itunpen Etxean. An azaltzen du bizkaiko burniaren izakera, arrasatekoarena, batez ere. Balio aundiko gauza ta metala, dio. Urreak eta zillarrak baño geiago balio duena.

* * *

Garai artan, Sevilla'ko giza-maill guztietai ikusten dira euskaldunak, baita eliz-gizonengan ere. Ta ez bakarrik aundizki artean, baita errietako jende xalo ta apalen artean ere. Or dauzkagu bestela ainbeste argin euskaldun, mordoka, beren langintza Burgosen eta Gradanan ikasi edo obegotu zutenak, eta gero Sevillan argintza bikaiñak egiñ ziranean, maixu aundi batzuk bezala agertu ziranak. Adibidez, Alcazar gaztelua, Bost zauriko Gaxo Etxea, Batzar-tokiak, eta Sevillako aundizkien etxe danak. Asko argiñ-maixu izena artzera iritxi ziren: Gaintzatarrak bezala, Martin eta Juan. Zumarraga, Martín de Segarra, Ikastegietakoa, eta abar eta abar...

Katedral lanetan emeretzi urte zeramatzen Lope ta Martin Balcisquetaz, katedraleko ageritegian gorespenik onena irakurri nuen, milla bosteun da berrogeita amairugarren urteari dagokiona:

“Lope ta Martin Balcisquetari: Aste ontan ordu guztietai, ardura bereziarekin eta geiegi errege elizatxoaren ormak botatzen lan egin dutelako...”.

Onelaxe beste asko, edo katedralean, Batzar-lekuetan, edo errege gazteluetan... Luis de Villafranca bezala. Martin de Valiarren (Baliarrain), Saldiviak, Garcia de la Gorreta (Legorreta), Antón de Aguirre Astiaso, Arrue, Pedro de Armendia, Artiaga, Miguel de Ordaneta, Barrueta, Juan de Unceta,

Juan de Zavala, Martín de Uluru, Juan de Mocorona, Pedro del Orrio, ta onelatxe beste asko ta asko...

Argitasun auekin beste gauzarik ez degu nai izan: nabarmendu euskaldun asko bizi izan zirela Sevillan, eta gainera garrantzi aundia izan zutela.

* * *

Cadiz' i buruz, gizaldi bat eta urte batzuk bakarrik geiagoren barruan, *Cristo de la Humildad y Paciencia*'ren anaitegian, milla seireun da geiago baxkide zenbatu ditut. Geienak abizen euskaldunak dituzu.

Bañña, orain, bai abizenetan bai etxe ta kale izenetan, uri auetan dagoen ainbeste euskaldun kutsu ta urrats, utz ditzagun alde batera. Orain begirada berezi bat eman dezagun Andaluziatik Ameriketara salto egin zutenei. Aien izenak Sevilla'ko paperetan gelditu ziren, Indietako ageritegian, batez ere.

Batik bat, ain landurik gabe dagoen alorrean, ez da oso erreza jakitea zenbat euskaldun igaro ote zan Andaluziatik Ameriketara amaseigarren gizaldiaren aurreneko erdian. Sevilla'tik bakarrik, eta lege bideetatik, amaseigarren gizaldiaren aurreneko erdian, eun da berrogeita amar milla pasa zirela Ameriketara, Freidek uste du. Baña, kontuan eduki bear degu, *Catálogo de Fondos Americanos del Archivo de Protocolos*'en, legezko agiriren bat bear zutenak bakarrik izendatzeten direla.

Eun da berrogei ta amar milla auetatik, zenbat izan ziran euskaldunak?, galdezen du Jon Bilbaok: *Vascos en Cuba*, 1492-1511, cap. VIII. Onela erantzutzen du:

“Zeaztasun guztiak aurrean ditugula, zenbaki ortan eunetik zortzi euskaldunek parte artu zutela, esan genezake. Ez da gutxi orduan Euskalerrian zan jendea, gogoan artzen baldin badegu”.

* * *

Euskaldunak Ameriketan parte aundia artu zutela, ta batez ere amaseigarren gizaldiaren asieratik aurrera, zalantzarik ez dago egiterik tamalgarria dana au da: Segundo Ispizua, gizaldi onen bigarren amarrekoan izan zana, bantzartzen badegu, Indietako Ageritegian ez dela izan aztertzaille euskaldunik, alegia, oraindik.

Eta ez det esaten, gutxieneko amalau milla millioi folio-orri osatu, ta beroiekin zortzi milla ta seieun da laurogei kilometrotako zerrenda bat egingo lukeen, berrogei ta iru milla ta bederatzieun da iru paper-xorta ta iru milla ta lareun mapa ta irudi aztertu ta ikertzeko. Ez. Euskaldunen Euskalerritik kanpora irtete arazo au mordoan eta oroerara ikasteko bakarrik baizik. Emendik asi bear genduke, noski. Ta ez pentsa oso gauza zailla izango litzatekeenik, antxen dauzkagu ta abedezko izendegiak oraindik argitaratu gabeak. Noiz joango ote da Sevillara Euskalerritik billatzaille talderen bat bere kondairaren ain zati ta alderdi garrantzizkoa ikasi ta azterzera!

Egia esan, oraindik argitaratu gabe dauden abedezko izendegi auetatik, atera ditugu guk al degun eran guipuzkoakoien izenak, eta eziñ konta dira. Izendegi auetan dauden Itunpen Etxeko paperen zerrendan izen guztiak, non-goak ziran, nun ill ziran, astapenak edo fundazioak, lanbideak... eta abar eta abar.

Iturriak

Indietako Ageritegiko paper txorta batzuren oarpenak izan ezik, guk gure ikasteratako erabilli ditugun iturriak auexek dira:

- 1) Itunpen Etxeko paperen zerrendan lenengo atalean dauden izen guztien abedezko izendegiak. Lau tomo.
- 2) Itunpen Etxearen bilduna. Bi tomo.
- 3) Cristobal Bermudez Plata: *Catálogo de pasajeros a Indias (1509-1559)*. Iru tomo.
- 4) Pierre ta Huguette Clanu: *Seville et l'Atlantique (1505-1650)*, Librairie Armand Colin, Paris, 1955. Balio izugarriko lan beldulgarria. Amaika tomo.

Zer ez dago an?

An daude gudalosteen eta itsasuntzien irteera urtea, illa, eguna... Indietara. Itsauntzien izenak. Almirante gidariak. Jabeak... euskaldunez beteak!

5) José Diaz Noriega Pubol: *La blanca de la carne en Sevilla* ere oso onuragarria da. Lau tomo. Instituto Salazar y Castro, C. S. IC. Madrid, Hidalguia, 1975.

6) Parrokietako liburuak. Batzuk oso izendegi onakin. Sevilla'n, erdiko Magdalena parrokiaren bezala.

Cadiz'i buruz, milla seieun ta irurogei ta amabostetik milla zazpieun eta ogei ta laura, ta milla zazpieun eta irurogei ta amairutik milla zoztzieun eta ogei ta amabostera, eskuz idatzitako liburuak dauzkagu. Azkenekoak, ziurragoak dira abizenak igarotzen. Euskalerriko lau lurraldekoen izenen izendegia ere badaukate. Milla zortzieun eta zazpigarren urtean.

Baita XVIII.gizaldian urian egin ziren bi izen emate ere badakartzza. Milla zapieun ta laurogei amazazpiko ta milla ta zortzieun da ogei ta bateko arrotzen gidari polit asko ere bai. Berdin gerrago Rossety gidariak. Abizen euskaldun asko agertzen dira oietan, denetan. San Fernando'ko itsaskuntza eskolako auzibidean izendegiak ere oso onuragarriak eta baliotsuak dituzu.

Gure lana zer izan da? Iturri oietatik aterata, abizen euskaldunez beteta dauzkagun lau koaderno, Kerexetak bere liburuan dakartzarenarekin alderatzea. Batez ere, gutxiena ibiliak edo ezagutuak zirela iruditzen zitzaitzigu-nak.

Azkenean ikusiko degu billaketa ta lan onen ondorioa. Aurretik, aipatu dezagun euskaldun abizenek daukaten zaitasuna edo eragozpena.

Euskaldun abizenen zaitasuna

Batzutan, toki-izenak, bestetan, luzeak direlako, nik uste det euskaldun abizenak zaillak direla esaten, eta zaillagoak idazten. Begiratzea besterik ez daukagu abizen askorekin gure errian bertan zer gertatu den. Bi ulerpide jarri ditzadan, oso ondo ikasi ditudalako: Arruebarrena ta Mancisidor.

Baserriak *Arrue* izanik, abizena *Arruebarrena* izatea, bidezkoa da, noski. Erraz ulertzen da e izkia jana izatea *Arruarte* baserriaren izenean, *Arruearte*-ren ordez.

Gipuzkoan, Gaintzako parroki liburuetan, irureun urteetan, *Arrue barrena* idazten da. Baino lengo gizaldiko azken urteetan, apaiz batek -e-, -a-, egiten du. Ta nire amaren neba batzuk *Arruebarrenaren* ordez, *Arruabarrena* daramate. Geroztik, bi aldetara, naastuan idazten da: *Arruebarrena* ta *Arruabarrena*.

Beste orrenbeste gertatzen da *Mancisidor* abizenarekin. Errijakintzari Iztueta jaunarekin aaiide zan emakume batek esaten zidan bezala *Mancicidor* idazten zan len. Eta egia esan, ala ikusi det askotan Cadiz'ko paperetan.

Zenbatez aundiagoa da zaitasun au Andaluzian! *Gaviria* enparantza Sevilla'n *Gavidia* biurtu zan. Jatorriz Getarikoa, legegizona, ta Juan Ramón Jiménez Etxearren zuzendaria den Juan Gorostidi jaunari, bein baño geiagotan entzun izan diot tankera onetako eskutitzak artu izan dituela: Juan *Glotilde* jaunari. Au da, *Gorostidi* abizena, Moguerko askorentzako *Glotilde* biurtu da. Ezer ez dezagun esan, San Lucar de Barramedan *Otaolaurrechi*, ango sendi bat, esaten asten direnean...

Nire bigarren abizenak, Euskal-Nafarroa erditik asita, elizbarrutiko luma gelatik igaroaz, Sevilla'ko eziketa etxera iristen gerala ez dakit zenbat aldaketa dauzkan: *Arruetabarrena*, *Arrambarena*, *Arruburrena*, *Arrabarrena*...

Gure ikasketan abizen aldaketa askorekin arkituko geranez, gaurko egunean ere euskaldun abizenek nolako aldaketak egiten dituzten, pixka bat beinik bein aipatu nai izan det.

Ikusi egin bear da, Sevilla'ko amaseigarren gizaldiko idazkariek nolako zalantzak ibiltzen dituzten gai onetan.

Argibide batzuk bakarrik ditzagun.

De Sancho de *Aguerche* (*Aguirreche*?).

Milla bosteun da berrogeian: *Agueacha*, *Agueche*, *Agiache*, *Aguarche*... idazten da.

Milla bosteun da laurogei ta amazazpi ta milla seieun bitartean, beren Donostiakoa dan diruzain baten abizena, onela idazten dute: *Arnalte, Arnalde, Arnialde, Arnante, Arnate*.

Milla bosteun da emeretzian, Juan López onela idazten da:

Archuleta, Arechuleta, Archuloeta.

Ta milla bosteun da berrogei ta lauean, Eibarko zan berataz: *Arizulueta, Arichuleta*.

Milla bosteun da ogei ta amabostean, Santiago Guruzica: *Goroguça, Goroça, Guruza, Guriçaça*.

Milla bosteun da amaseian, Juan de Ipirtien: *Ipiztien, Ipizticu, Ipinzo*.

Jakiña, badaude abizen euskaldunak gaizki idatziak, baiña asmatzen zaillak ez diranak.

Adibidez, Sevilla'n lanean argin euskaldunak ibilli zirala dakienak, aien erriak denboraz sumatuko ditu:

Martin de Valiarren, *Baliarrain* izango da, noski. Lope de Balcisqueta, *Abalcisqueta* Martin de la *Gorreta, Legorreta. De la Mesqueta, Amezketa...*

* * *

Alorça, oñatierra ta Sevilla'n bizi dana milla bosteun da ogei ta amabostean, *Elorza* izango da. *Anciondo o Anchiondo. Andegui* edo *Antonegui, Andonegui* edo *Andonasegui. Araenta* edo *Araneta. Aguiniga, Aguinigua Aguiñiga. Aren* edo *Arin. Andendariz, Armendariz*'en ordez. *Argoen, Argoin, Argoain. Arroztegui* edo *Arrotegui, Arostegui*'ren ordez. *Ascargortos, Ascar-gorta'ren* ordez. *Astiziaran, Astizuaran*'en ordez. *Astomba, Estomba*'ren ordez. *Yorruga, Churruka*'ren ordez. *Cenique, Echenique. Cortabavia, Cor-tabarria; Ochandiegui, Ochandategui*'n ordez, eta abar eta abar. Ez dizuet neke luzea zuei ekarri nai.

Askotan ikusi degu erri ta abizenak banakatuta ta puskatuta daudela. Onela: *Elorio, idatzi bearrean, beti Del Orrio* idazten da.

Legorreta: de la Gorreta.

Amezqueta: de la Mezqueta.

Villabona: Villa-Bona.

Labayen: de la Bayen.

Larrea: del Arrea.

Jacome (1537) Laborde: de la Borde.

Larragoiti: de la Rragoiti. Larrauri: de la Rrauri edo, de la Rauji.

Larrieta: de la Rrieta. Lasalde, Juan: de la Salde (1581). Velaústegui: Vela-Ostegui.

* * *

Askotan abizenaren asieran *h* jartzen da arritzeko moduan:

Sebastián de Harin, Ataungoa, ta Sevilla'n bizi zana milla ta bosteun da ogeita amaseian:

Hali, Pedro, de, 1538. Sevilla
Haza Llaguno, Santiago de (cap), 1682
Heguiluz, Francisco de, 1797. Cádiz
Hegurvide, Martín de, Durango, 1527, Sevilla
Helorduy, Sebastián de, 1559, Sevilla
Helusa, Domingo de, vec. de Oñate, 1511, Sevilla.
Hendara, León Antonio, 1698, Cádiz
Herrate, Martín de, 1716, Cádiz
Herriega, Juan de, 1537, Sevilla.
Hetorra, San Juan de, 1551, Sevilla
Humansoro, Martín de, 1520, Sevilla.

Erre baten ordez, bi erre ikusten dira batzutan:

Ainzurriza, *Ainzuriza'ren* ordez.

De *Uzurriaga*, *Uzuriaga'ren* ordez. *Zetaren* ordez, -s- *Isaguirre*, *Albisuri*, *Irasagorria*, *Pagasartundua*, *Amosarrain*, *Izaguirre*, eze *Albizuri*, *Irazagorria*, *Pagazartundua*, *Amozarrain'* ordez. Ch'ren ordez, -s-:

Insaurbe, *Insaurraga*. Erre'ren ordez, 1: *Aldasolo*, *Aldasoro'ren* ordez.

Askotan izkinak ere bakandu ta kentzen dira: *Larrandi*, *Iberri*, *Saspuru*, *Laramendi*, *Iriberry*, *Larraspuru'ren* ordez. *Larraspuru* almirantea, Azkoitikoa zan, itsaslapurren jarraikitzalle sonatua.

Beste batzutan, izkinak leku aldatu egiten dira, atzeratu ala aurre-ratua:

Araurreohenean, *Arrurrenechea'ren* ordez.

Abizenak gaizki idatz-aldatu ere egiten dira beiñ baño geiagotan: Sancho de *Vidanibia*, *Urdanibia* izanik. Juan de la *Zust*, Donostikoa, *Yust*. Eta Amerika arkitu zan aurreneko urteetan, etzan esaten *Begoña*, *Begonia* baizik.

Idatz aldatzen ariaz, abizenek beren zeresana galdu egin dute: One-la milla bosteun da ogei ta zazpian, Oñatiko *Celedón de Acordui*, Sevilla'n. Bai. *Acordui*. "Cedilla" galdu egin du. Dudarik gabe, *Azurduy da*.

Bilbao ta *Oñatiñ*, abizena

Milla sieun da amarrean, Oñatiako Sebastián Martínez'i dagokio-la, *Asurdui* arkitzen degu idatzita.

Ondoriotara etorri gaitezen.

Lenen: laureun ta berrogeita bost abizen arkitu ditugu berriak dire-nak, aldatuak ez direnak.

Jaime Kerexetaren liburuak ogei ta bost milla ta geiago dauzka, ta oiek ez dira an arkitzen. Gu gai ontan maixuak ez geranez, ontan mai-xua dan Koldo Mitxelenak aztertu bearko ditu, eta berari eskaintzen diogu lan au pozik eta bai ta bildurrez ere. (Ikus: I. *eraskiña*.)

* * *

Bigarren: eun da lau abizen eta geiago arkitu ditugu izkinak ala bukaerak aldatuta. Noski, eunka billatzen dira onela abizen euskaldu-nak. (Ikus: II. *eraskiña*.)

Cadenas eta Vicent'en liburuan bakarrik arkitzen diran abizenak ere egiztatzenten ditugu amairu. (Ikus: III. *eraskiña*.)

Euskalerrian abizen auek ez dira ezagutzen baiñan guk, Sevilla'n, Cádiz'en arkitu ditugu. Batez ere, ba daude abizenak euskalerrikoak bai-ño leenagokoak direnak eta zaarragoak, Euskalerrian baiño leenago irte-ten eta ezagutzen direnak, edo beintzat, Kerexeta'ren liburuan baño len: Eun da ogei ta amalau zenbatu ditugu. (Ikus: IV. *eraskiña*.)

Azkenik, ba daude beste ogei ta emezortzi Sevilla'n eta Cádiz'en leenago azaltzen direnak, Amerika, Uruguay, Colombia edo Mexicon baiño. (Ikus: V. *eraskiña*.)

Cadiz'ko abizenei buruz, beintzat, Euskalerrikoak bezala agertzen ote diren gure iritzia izan da. Sevilla ta Cádiz'en Castillako abizenak era-man bazezazkeen ere.

Izenaren ondoren etortzen dan: *de* izkia ere neurritzat artu degu. Idazkariek *de* ori abizen euskaldunekin bakarrik erabiltzen bait dute. Besterenik ez.

Euskaldun- sevillatar izatez eta naasketaz ez degu itzik esan. Eta ez bakarrik uri nagusi Sevilla'n, baita inguruko erri txikietan ere.

Adibidez: Galindo, Orea, Ogeda, Mingorance Alkala de Guadaira erriana-Bidarte, Buiza, Lizardo, Imaz, eta berdin Ibarburu, Meñaca, ta Bertendona'ko. landetan. Baiña errixa urrutikoenetan ere euskal urra-tsa agertzen zaigu:

Ureba, Anaya, Zarra, Puyana, Mareco, Rota...

Eta Cadiz'tik aiñ baztererri egiten den Konil'en ere, eta Arriate, Malagan.

Izenetako ikusi euskaldun au, arrantzaleen izketan ederki azaltzen da:

Tolete, Chicote, Cabo, Cuerda, Chalupa...

Batzutan, oso ezagunak diren abizenak, uste gabeko ingurukak eta alkartea egiten dituzte Andaluziaren muiñeko diren izenekin:

Ibarra Buiza, Lacabe Abarzuza, Zaldo Barrena, Wamba Jauregui...

* * *

I. eraskiña: eraskiñ ontan, esandako lekuetatik ateratako euskal abizennak eta abendeko eran jarrita, arkitzen dira. Abizen auek ez daude Kerexeta jaunaren liburuetan. Ta gaiñera “de” itz aurrekoau daukatenak bakarrik kontuan artzen ditugu. Badakigu, “de” itz aurrekoau andaluzian euskaldun abizenei bakarrik jartzen diela. Ez beste edozein atzerriko abizeneri, euskalduna ez denari, alegia:

ABENDIN, Juan Ochoa de, 1604, Sevilla.

ABERRECA, 1668, Sevilla.

ABISOLA, Juan de, Lezo, Guipúzcoa, 1608, Sevilla.

ACADAZ, Agustín Francisco, 1679, cofradía de Cádiz.

ACARIAGA, Andrés de, 1559 Sevilla. Figura en la toma de posesión de la capilla de los vizcaínos. ¿Azarraga?

AGARAN, Juan de, de Guetaria, 1582. Sevilla.

AGUARCHE, Martín de, 1539 Sevilla. También del mismo piloto Martín Aguerche en 1535.

AGUIRRETIGUI, Pedro Manuel de, 1663, Sevilla.

AIRELUCEA, 1561, Sevilla.

AIZTARBE, Miguel de, XVI de Azcoitia. Sevilla. Aiztarte (?).

AIZTURBE, Juan Martínez de, 1546, congregación de Sevilla.

ALARAZ, Roque de, 1606, Sevilla.

ALCHIVEITIA, Juan + Judías.

ALDERETE.

ALEMAN de LEGUIZAMO, Juan de, Bilbao, Sevilla.

ALGARRA, Santiago de, Corregidor en Chibata, Navarra-Trae L. M.

ALMATO, Juan Bautista de, 1702, cofrade de Cádiz.

AMERAZ, Miguel de, 1821, Cofradía de Cádiz.

AMPANEDA, Atilano de, de Alava, 1802, cofradía de Cádiz.

AMUNIZAGA, Pedro de (cap.), 1570, Sevilla.

ANDAGORRI, Juan de, Usurbil, 1600.

ANDIBIA.

ANDINO, Nicolás de, 1686, cofradía de Cádiz. Andin, en Colabia.

ANTEGORTUA, Antonio. Artegortua (?).

ARACANAL, Juanes de, 1590, Sevilla.
 ARAZUBICU, Domingo de, 1647, Sevilla.
 ARARRAGA, Juan de, 1638, almirante de la escuadra del océano.
 ARANEDA, Juan de, 1618, Sevilla.
 ARCA, Juan de, de Fuenterrabía, siglo XVI, Sevilla.
 ARCHEDEGUIN, Juan de, 1797, Cádiz.
 AREILAGA, Pedro de, 1536, Sevilla.
 ARGANDOYA, Gaspar de, piloto, 1620, Sevilla.
 ARGUINIGO, Domingo de, 1608, Sevilla.
 ARIBINO, Joaquín de, 1608.
 ARISTOGUIETA, Domingo de, 1546, Sevilla ARISTIGUIETA (?).
 ARIZPEOLEA, 1624, Sevilla.
 ARJERRA, Pedro de, 1634, Sevilla.
 ARNORA, Miguel de, Irún, 1616, Sevilla.
 ARQUEAGA, Esteban de, 1536, Sevilla. Arquiaga (?).
 ARTEGUIETA, Martín de, Alava, murió en Cádiz, 1810.
 ARZULARSA, Pedro Ochoa de, 1544, Sevilla.
 ARRAGUE, Nicolás de, Segura, 1528, Sevilla.
 ARRAIYADA, Antonio de, 1607, Sevilla.
 ARRAYAGUADA, Diego de, 1611, Sevilla.
 ARRISTE, Juan, 1649, Sevilla.
 ARROYUELO, Ramón de, 1794-1828; también Cándido y otros, Cádiz.
 ARRUESO, Antonio de, 1585, Sevilla.
 ASPARREN, Felipe de, Lzd.^o, 1682, Cádiz.
 ASTUNDRAGA, Francisco Ortiz de, 1647, Sevilla.
 ATASCOROA, Juan Bt.^a de, 1704, Cádiz.
 ATEBIDE, Martín de, 1642, Sevilla.
 ATEGUIRE, 1526, Martín López de; también en, 1531.
 AUSTIZABAL, Andrés, capitán de infantería de Indias.
 AXORTEGUI, Joseph de, 1647, (¿Azurtegui?), Guipúzcoa.
 AZARIAGA, Andrés de, 1557, Sevilla.
 AZARTE, Martin de, 1533, piloto, Sevilla.
 AZCONAVIEJA, Gregorio de, 1640, de San Sebastián; murió en Los Angeles.
 AZENUDO, Ignacio de, 1677; Pedro Joseph, cap. 1575, en Cádiz.
 AZUETA.

* * *

BABIL DE URIZ, Simón, 1773, Cádiz.
 BANDIN SALGADO, Domingo, 1687, Cádiz.
 BARACHIGA, Simón de, 1600, Sevilla.
 BARANDIAS, 1534, Sevilla.
 BARRA, Joseph de, 1689, Cádiz.
 BARRABARENA, Domingo y otros, 1703. Cádiz.
 BARRACHEA, Juanes de, Usurbil, 1692, ¿Barrechea?

BARRAGA, don Gonzalo de, 1593, Sevilla.
 BARRIBERBY, Francisco de, 1626, Sevilla.
 BEAR, Agustín de, 1698, Cádiz.
 BEDICO, Antonio de, 1695, Cádiz.
 BELCOS, Pedro de, 1689, Cádiz.
 BELORZA o BELORRA, San Juan de, 1549, Sevilla.
 BERNOYA, Martín de, 1797, Cádiz.
 BIDUNA, Juan de, 1516, Sevilla.
 BIVESTAQUI, Pedro de, 1610.
 BLANDINO, Pedro de, 1689, Cádiz.
 BOLOS DE LARREA, Francisco de, 1691, Cádiz.
 BRIZA, Andrés de (alf), 1675, Cádiz.
 BURBOA, Juan Martínez de, 1598, Sevilla.
 BUSTAMBIDE, Juan de, 1642.
 BUXETA, Juan de, de Orduña, 1512, Sevilla.

* * *

CABIERES, Martín José de, Vizcaya, 1829, Cádiz.
 CAMUERO y LABANDIJA, Antonio de, 1799, Cádiz.
 CARAZO DE LA PEÑA, Manuel de, Vizcaya, 1795, Cádiz.
 CARBUERA, Martín (cap.).
 CARLOS, Juan Miguel de, Navarra, 1798, Cádiz.
 CARNEGUITA, Juan de, 1650, Sevilla.
 CASABARITE, Sebastián de, 1640, Sevilla.
 CASTRECORTA, Diego de, 1650, Sevilla.
 CASTRISIONES, Angel M.ª de, 1816, Cádiz. Varios.
 CEOLAZA, Francisco de (cap.), 1682, Cádiz.
 CESTU, Martín de, 1533, Sevilla.
 CESUMAGA, Antonio de, 1687, Cádiz.
 CIBITOLA, Juan, de Lezo, 1600, Sevilla.
 COLARAZ, Francisco de, 1540, Sevilla.
 CONCHA, Santiago de, 1678, Cádiz.
 COS, Domingo de, 1695, Cádiz.
 COSSUELA, Manuel de, 1724, Cádiz.
 COSTAN, Juan.
 COSTAVARRICA, Pedro de, 1642, Sevilla.
 CROYENA, Juan Antonio de, 1777. Cádiz.
 CUNIO, Felipe de, 1686, Cádiz.
 CHAMUCHASTEGUI y GONATIVIA, Manuel de, 1691, Cádiz.
 CHORUCA, Francisco de, 1521, Sevilla.

* * *

DOPEROCHEGUI, 1797, Cádiz.
 DRICITA, Gregorio, San Sebastián.

* * *

ECHAGOYA, Juan de, 1575.
 ECHEVARRETA, Miguel de, 1649.
 ECHEVES.
 ECHEBERMEY y MENDIONDO, Miguel, teniente de gobernador.
 ECHICA, Joseph de, 1810, Cádiz.
 EGAY y Espejo, Juan, tesorero de la casa de Maracaybo.
 EGUERRERI, Miguel de, 1620, Sevilla.
 EGUNO, Rufino, 1814, Cádiz.
 ENDARDE, Francisco de, 1588, Sevilla.
 ENGUEZ, Diego de, 1800, Cádiz.
 ERRESUMA, Juan López.
 ESCASUA, Josepla, Teniente oficial Real de Monfor.
 ESCURIA, Martín de, 1598, Sevilla.
 ESCURIAGA, Lope de, 1507, Sevilla, ¿Escuriaza?
 ESNOS, Martín de, 1687, Cádiz; sin fecha, Esnoz (?).
 ESTEBANARTE, Matías de, 1630, Sevilla.
 ESTURIZAGA, Luis, 1535, Sevilla.
 ETURIELA, Juan, receptor en el Perú.
 EZEVERRICHA, Joseph Aurelio, contador de Cartagena.

* * *

FERNANDEZ DE BIANA, Gaspar, 1689, Cádiz.
 FERNANDEZ DE BASOA, de Alava, 1795, Cádiz.
 FERNANDEZ DE RECALDE, Juan, oidor de Lima.
 FIERRO, Blas del, 1817, Cádiz.
 FONCEA, Leonardo de, 1791, Cádiz.

* * *

GAITUNA, Pedro Juan de, 1553, Sevilla.
 GALDIVAI, Gaspar de, 1646, Sevilla.
 GANCOECHEA, Rafael, 1821, Cádiz.
 GARAGA, Pedro de, nat. de Orio.
 GARANCIBAY, Domingo de, Laredo, 1624, Sevilla.
 GARCIA ALZUGARAY, 1826; varios, Cádiz.
 GARCIA DE EMBILA, Juan, Francisco, Manuel, Martín, 1698, 1713, Cádiz.
 GARCIA DE LUZCUA (cap.), 1686, Cádiz.
 GARCIA GASTON, varios, 1827, Cádiz.
 GARCIA DE UGARTE, varios, 1800, Cádiz.
 GARCIA DE URRAPAYN, Juan, 1561, Sevilla.
 GARDE, Joseph Thadeo, nat. de San Sebastián, 1803, Cádiz, murió en Manila.
 GARROMUNO, Antonio de, 1690, Cádiz.
